

KONTROL MOZIOA

AGITIKO KALA LEHENERATZEARI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urriko Lurralde Garapen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2025eko maiatzean Udalbatza honek Agiti kalari buruzko mozio bat onartu zuen. Mozio Arrunta zen, aho batez onartua, eta Eusko Jaurlaritzari honakoa hauek eskatzen zizkiona:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenbailehen has ditzala Agitiko kala ingurumenaren aldetik lehengoratzeko izapideak.

2.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio legez eska dakizkioken lehengoratzeko-neurriak bete ditzala erreklamatzeko emakidadunari.

Bost hilabete igaro dira eta Eusko Jaurlaritzak ez du Agitiko ingurumena leheneratzeko inolako urratsik eman. Are gehiago, joan den irailean, Arrantza Zuzendaritzak Agitiko arrain-haztegi zaharrean "algak ekoizteko" proiektu bat ezagutarazi zuen.

Eguzki talde ekologistak alegazioak jarri dizkio Blue Reef Algae enpresak aurkeztutako proiektu honi, Agitiko kala behingoz leheneratzeko helburuarekin. Izan ere, eta ekologistek argi adierazi duten bezala, hemeretzi urte dira arrain-haztegiko jarduera bertan behera geratu zela; hau da, eraikinak urte gehiago egin ditu jarduerarik gabe jardunean baino. Bestalde, hamalau urte igaro dira Culmanor SA enpresak haztegia itsas-lehorreko jabari publikoan eta haren babes-eremuan eraikitzeko lortu zuen baimena iraungi zenetik. Eta, azkenik, badira hamahiru urte Ura Agentziak instalazio guztiak desmuntatu eta kala leheneratu behar zela esan zuela.

Kontraesankorra bada ere, hamahiru urte geroago Ura Agentziak proiektu berriaren aldeko txostena eman du. Hau da, ez du aintzat hartzen 2014an kala lehengoratzeko hartutako ebazpena, eta, gainera, arbuia egiten du 2012ko bere txostena.

Agiti kala EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Planean (LAP) Babes Zorrotz Berezi gisa agertzen da, eta, beraz, ingurumen- eta lurralde-babes handiena du. Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, bestalde, Gipuzkoako Eremu Degradatuen Inbentarioan sartu zuen 2020ko abenduan. Are gehiago, Donostiako Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspenaren Aurrerakinak berak ere, lehentasunez leheneratu beharreko eremu gisa identifikatzen du.

Urte hauetan guztietan ez da ezer egin leheneratzeko lege-agindua betetzeko, eta orain ingurunea erabiltzen jarraitzeko proiektu berri bat aurkezten zaigu. Eta aipatzekoa da Algaloop edo Blue Reef Algae enpresak proposatutako proiektua ez dela algen laborantzara mugatzen. Udalari proiektua berrikusteko eta onartzeko bidalitako dokumentuan, adibidez, Donostiako turismo-estrategiari egingo dion “ekarpena” azpimarratzen da. Gastronomia, talasoterapia edo biokosmetika aipatzen dira. Marinus Innovation Hub, “funtzio anitzeko espazio bat”. Eta esan gabe doa horrek guztiak dagoeneko kaltetuta dagoen ingurunearen balio ekologikoa larriagotu baino ez lukeela egingo.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez ditzala baimendu Agiti kalan jarduera ekonomiko berriak.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, maiatzean aho batez onartutako mozioa errespetatze aldera, aktiboki jardun dezala Agiti kalaren ingurumena lehengoratzeko.

Donostian, 2025eko urriaren 24an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia